

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Haur bakoitzeko ia bi txakur daude Urnietan

Guztira, 1.356 txakur daude erregistratuta, eta 15 urtetik beherako 780 lagun bizi dira. Andoainen 2.193 txakur eta 2.150 haur bizi dira / 10-13

Sanjuanak, Andoainen

Ostiralean hasi eta asteartera bitarte jaietan murgilduko dira andoaindarrak / 3-9

San Juan bezperako
sua eta ospakizuna,
igande gauean,
Andoainen eta
Urnietan / 14

Hezkuntza Sailak
12,6 milioi euroko
inbertsioa iragarri du,
Urnietako Egape
instituterako / 2

**AURREKONTU IREKIEN
PARTE-HARTZE PROZESUA**

**Informazio karpa
ekainaren 21ean.**

10:00etatik 14:30era
Etxeberri plazan eta
17:00etatik 20:00etara
Zubitxo plazan.



"Eraikin luze bat proiektatu da, ipar-ekialdetik hego-mendebalderako norabidean –lursailaren beraren konfigurazioari jarraiki– eta hiru solairu izango ditu: erdisotoko solairua, beheko solairua eta lehen solairua. Behar izanez gero, etorkizunean ikastetxea gorantz haztea (beste solairu bat gehituta) ahalbidetuko duten zimendu eta zutabeetan sostengatuko da", dio oharrak. IREKIA

Hezkuntza sailak 12,6 milioi euroko inbertsioa iragarri du, instituturako

Asteartean eman zuen albistea Eusko Jaurlaritzak: 12,6 milioi euroko gastua onartu du, Egapeko DBHko eraikin berria eraikitzeko. Gastua egiteko baimena emanda, Hezkuntza Sailak obra esleitzeko prozesuari ekingo dio. 2027an errealitate bilaka daiteke

Erredakzioa URNIETA

Atzera, oso atzera begira jarrita, baliteke ez izatea eraikina egiteko data iragartzen den lehen aldia. Baina, oraingoan, behin betiko egitasmoa dela dirudi. Honatx, astearteko gobernu kontseiluaren ostean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratu emandako adierazpena: "Urnietako Egape BHIko eraikin berria egiteko proiektuak 24 hilabeteko exekuzio-epea izango du obrak hasten diren unetik kontatzen hasita. Jarduera

horretarako aurrekontua Gobernu Kontseiluan onartu ondoren, Hezkuntza Sailak esleitzeko prozesuari ekingo dio, obrak 2025eko lehen hiruhilekoan hasteko aurreikuspenarekin".

Etsiak jota zeudenentzat, albistea zehaztasunez beterik dator: "Gobernu Kontseiluak 12.611.320,89 euroko (BEZa barne) aurrekontua onartu du gaurko bilkuran, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Urnietan Egape Bigarren Hezkuntzako

,Instituturako (IES Egape BHI) eraikin berria altxatzeko.

Eraikin berria Haur eta Lehen Hezkuntzako Egape ikastetxearen ondoko lursailean eraikiko da, beste ikastetxe publiko horretako pista estaliaren atzealdean. Eraikinak 3.761,44 metro koadroko azalera eraikia izango du guztira, eta sarbide nagusia etorkizunean Babilonia Bulebarrak izango den horretan duela proiektatu da; udalerriko hirigintza-planean neurri batean oinezkoentzako aurreikusitako

Eraikin berriaren xehetasunak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zabalduko oharrean dio "herriko haurrek instalazio modernoak" izango dituztela, "beren behar guztiei erantzuteko eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko".

Jarraian, ohar berean, 2023an onartutako proiektuak jasotzen dituen xehetasunak zerrendatu dituzte:

- **Beheko solairuan, administrazio- eta zuzendaritza-gunea:** idazkaritza, zuzendaritza-bulegoak, bilera-gelak, irakasle-gela, informatika-gela, zientzia-laborategia, plastika-gela eta zereginen ikasketa gela.
- **Erdisotoko solairuan, hainbat gune:** erabilera anitzeko gela, musika/ikus-entzunezko/irratiko gela, jantokia, zerbitzu orokorrak eta instalazioen gelak.
- **Lehenengo solairua:** DBHko gela arruntak, teknologia-gela eta pedagogia terapeutikoko eta orientazioko gelak.
- **Kanpoaldea:** Gimnasio eta aldagelak eraikiko dituzte, pabiloi independente batean. Gimnasioaren eraikuntza-bolumen horrek estalkia eta egitura partekatuko ditu kanpoko kirol-kantxa estaliarekin.

"Urnietak merezi du"

1990eko hamarkadaren erdialdera proposatu zen, lehen aldiz, Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikin berria egiteko asmoa. Hemerrotekari erreparatuz, 2021eko ekainean, Aiurrik Guraso Elkarteak ordezkariek elkarrizketatu zituen. Hiru urte atzera, hain justu. Eskaera historikoa burutu gabe jarraitzen zuela-eta, Guraso Elkarteak ez zuela amore eman nahi adierazi zuen.

Zergatik sentitzen duzue beharrezkoa eraikin berria? Hutsune handia nabari dugu. Gabezia handiak ditu eraikinak: ikusten dugun orain arte behintzat alboratutako gaia izan dela, nahiz eta alderdi politikoei (hauteskunde-kanpainan, besteak beste) beren agendan txertatzen duten kontua izan. Aitzitik, errealitatean ez da sekula egi bihurtu hori. Beraz, ikusten dugu badela garaia gaiari irmoki eusteko.

Zuetako hainbat Egapeko ikasle zinetela azaleratu zen lehenengoz eraikin berriaren proposamena. Egun, guraso zarete, eta proiektuak burutu gabe jarraitzen du.

Adarra jo digutela sentitzen dugu. Bai, zurrumurrua hor dago, baina egitasmoak gauzatu gabeko egitasmo izaten jarraitzen du. Orain, zorionez, aurrerapausoak ematen ari direla ikusten ari gara, poliki edo nahi baino polikiago.

Gutako askoren seme-alabek aurki utziko dute Egape, eta ez dute eraikin berriaren ikasteko aukera izango. Alabaina, inork ez badu ezer egiten, berdin jarraituko du honek.

Zuen seme-alabek dastatuko ez duten eraikina da. Zergatik jarraitzen duzue buru-belarri lanean?

Herriak, Urnietak merezi duelako. Guraso elkarteak kide askoren seme-alabek bukatzen dute aurten Egapeko ibilbidea, baina kontua ez da hori. Pertsonala baino gehiago, kolektiboa da afera. Hezkuntza publikoaren ganako errespetua merezi du herriak.

kalea da hori. Izan ere, institutuaren eraikuntza bera ere eremu horretarako aurreikusitako hirigintza-garapenean kokatzen da. Hala ere, proiektuak sarbideak proposatzen ditu Lizardi kaletik (beste aldetik) eta albo-ko ikastetxe publikoko jolas-eremuetatik ere. Horrek hez-

kuntza-etapa desberdinetako bi ikastetxeen arteko komunikazio fisikoa ahalbidetuko du".

Albistea egun sinbolikoan iritsi da, asteartean egin baitzuten XII. Legealdiko azken Gobernu Kontseilua. Urkulluren eta bere exekutibaren azken erabakiak dira horiek.



Pinpilinpussies taldea Nafarroa plazan, aurreko larunbat iluntzean. Eguerdiko "Aperitif" saioko eta arratsaldeko Nafarroa plazako jaialdi nagusiko argazki-ikusgarriak Aiurri.eus webgunean ikus daitezke. AIURRI

Nafarroa plaza, jaietarako prest

Aurreko larunbatean jendetza hurbildu zen Nafarroa plazara, Rock Jaialdiaren edizio berriaz gozatzera. Jaien atariko da inguruko taberna eta txosnagunearentzat. Beroketa-lanak eginda, plaza prest dago gauero kontzertu handi bana hartzeko

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko edizioetan jende gehiago hurbildu bazen ere, Andoaingo Rock Jaialdiak badu bigarren aldaera: San Juan jaietarako azpiegitura abiarazteko proba da. Taula, txosnagunea eta inguruko tabernak prest daude San Juan jaietarako ekiteko.

Herriko eragileen ekarpena

Andoaingo Udalak, aurreko astean, agerraldia egin zuen Gokoplazan. Izan ere, jaiak gauzatzeko ezinbestekoa da herriko eragileen ekarpena. Udalak ai-

pamen berezia egin zien, jaien aurkezpenean: "Aurten ere gurean izango dira Lebiton konpartzako buruhandi eta erraldoiak, pilota, pala eta zesta punta partidak, xakea, herriko taldeen dantza-erakustaldiak, auzo elkarrekin antolatutako txuleta-jana, danborradak, bizikleta-festa, txistulariak, trikitalari eta panderojoleak, kross mistoa, artisau azoka, Axeri Dantza, herri kirolak, 80 urte bete dituztenen bazkaria... Beren partaidetzarik gabe, ezinezkoa litzateke San Juan jaiak diren modukoak izatea".



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINGO UDALA



Gonzalo Martinez Enderren Jokoa elkarteko kidea da. AIURRI

Rol-jokoen erakustaldia

Warhammer 40K mahai-jokoarekin lotutako torneoa antolatu du Enderren Jokoa elkarteak, Basteron. Gonzalo Martinez elkarteko kideak mahai-jokoaren eta torneoaren gaineko azalpenak eman dizkio Aiurri

Xabier Laa ANDOAIN

Andoaingo San Juan jaien egitaraua eskuartean hartu duten askori, ziurrenik, zerbaitek arreta deitu badie, iganderako iragartzen den 'Warhammer 40K torneoa' delakoa izan da. "Zer

arraio ote da torneo hori?" galdetuko zion bere buruari batek baino gehiagok. Bada, oinarriko argibideak ematea komeni da, lehenbizikoz, eta horretarako prestatu da Martinez. Warhammer, rol-jokoen multzoan sartzen

den mahai-jokoa da. Rol-jokoek fikziozkoa edo erreala den munda irudikatzen duen egoera dute oinarri, eta bertan, jokalariek, fikziozko pertsonaiak antzezten edo rolak interpretatzen dituzte.

Warhammer 40K jokoari dagokionez, mundu fantastikoa eta zientzia fikzioa uztartzen dituen mahai-jokoa da. Neurri zehatzak dituen mahai batean jokatzen da, are zorrotzagoak diren arauekin, eta jokalaria bakoitzak fakzio edo armada bat gidatzen du; hamarnaka miniaturrek irudikatzen dituzte armada horiek. Miniaturak, soldaduak, gerrako ibilgailuak edo eszenografia-elementu desberdinak izan daitezke.

Xakearen antzera, Warhammer 40K ere estrategia jokoa da. Jokalari bakoitzak, txandaka, bere armada mugitzen du mahaian barrena, besteekin borroka egin. Jakina, aurkariaren armada akabatzea da jokoaren azken helburua.

Honako hau da Warhammer 40K jokoaren berezitasunetako bat: jokoan hasi aurretik jokalariek miniaturrek eskuz muntatu eta margotu behar dituzte. Bere zaletu amorratuentzat, dibertsioaren parte da eginkizun hori.

Sanjuanetan, torneoa

Gonzalo Martinezek adierazi duenez, San Juan jaien barnean, igandean jokatuko den torneo-rako, jada, 44 jokalarik eman dute izena. "Arabatik, Bizkaiatik, Nafarroatik, Errioxatik... datoz asko eta asko, eta esan daiteke, norbanakoen torneoen panoraman, Euskal Herrian, handiena izango dela".

Martinezek gaineratu du Andoaingo lehiaketak badaukala bere balio erantsia jokalarientzat, "izan ere, kontuan hartu behar baita Warhammer 40K jokoak, sortu zenetik, edizio desberdinak izan dituela, eta une honetan bederatzigarrenean dagoela in-darrean. Andoaingoa ziurrenik

azken torneoa izango da edizio horrekin, hurrengo egunetan hamargarrena zabalduko baitute, bere arau berrieekin".

Ekitaldia goizeko 09:00etan abiatuko da, eta 20:00ak bitarte luzatuko da. Basteroko kultur-gunean izango da, baina arratsaldeko 17.00etatik aurrera, Plaza Morean, erakustaldia egingo dute. "Joko horiekin jakinmina daukatenentzat egingo dugu ekintza, eta gonbidapena zabalitzen dugu bertara daitezen lasai asko".

Lau urteko ibilbidea

Enderren Jokoa elkarteak, Andoaingo zenbait rol-joko zaleek orain lau urte sortu zuten. Orson Scott Cardek idatzitako zientzia fikziozko liburu ospetsuaren izenburua hartu zuten elkarteari izena jartzeko. Ender Wiggin gaztea da liburu protagonista; intsektu estralurtar egarrien arraza batek gizateariaren etorkizuna mehatxatzen du, eta horien aurka borrokatzen ikasteko akademiako ikaslea da.

Egun, 40 bat bazkidek osatzen dute elkarteak. "Adinez, urtetan aurrera goaz, eta familia-gurasoak gara gehienok. Elkarteak irekia da, eta joko-zale edonor izan liteke bazkide".

Joko horien inguruko ekimenak (ikastaroak, pintura tailerak, joko saioak...) burutzeko eta materiala (miniaturrek, estandarteak, mahaiak...) gordetzeko espazioa behar dutenez, Udalak egoitza utzi dio elkarteari. Extremadura kalean kokatzen da egoitza, hain zuzen, iraganean euskaltegia izan zen leku berean.

Martinezek elkartearen zergatia zehaztu nahi izan du. "Arrazoi ugari bultzatu gin-

GOROSTIDI

Burdindegia

Kale Nagusia, 3
Andoain
620 881 472

www.brikogoros.com

andoaINDARRA

euskaraz

tuzten elkarteak eratzera. Lehenik eta behin, rol-jokoen zaletuok premiazkoztat jotzen dugu topagune bat, materiala prestatzeko eta elkarrekin jokatzeko edo ekimenak antolatzeko. Kontuan hartu behar da hobby garestia dela, eta aurrekontuak ihes egiten dizula pittin bat serio jokatu nahi baduzu, asko baita jolasteko behar den materiala (miniatuak, pinturak, aerografoak, pintzelak, mahaiaik, estandarteak...). Bada, espazio komun batek, jokalariek material hori guztia partekatu ahal izatea erraztu dezake”.

Erraztasunak aipatzen hasita, elkarteak gazteengan zaletasuna sustatzeko ezinbestekotzat jo du egoitza. “Hobby garestia dela aipatu dut, eta horrek atzera egiten die gazteei erabat; hala, pantailek, bideo-jokoak eskura eskura eta merkeago jartzen dizkie. Bada, gazteak erakarri nahi ditugu, materialarekin erabilerraztasuna ezarrita”.

Gazteekin segituz, sozializazioaren ezaugarria ere azpimarratu nahi izan du Gonzalo Martinezek, “pantailekin-eta, bakartasunean aritzen dira maiz



Gazteengan zaletasuna sustatzeko ezinbestekotzat jo dute egoitza. AIURRI

gazteak, ez dute lagunik behar jokatzeko. Rol-joko horiek, ordea, jendartekotasuna lantzeraino behar-tzen zaituzte”.

Hainbat giza-trebezia lantzeko egokia

Aurrejuzguei tira eginez, armadekin eta borrokekin lotutako rol-jokoek jokolariengan irrika belikoa sustatu ote lezaketen galdetuz gero, erabat ukatzen du uste hori Martinezek. “Lagun-giroan ondo pasatzea da joko horien helburu nagusia. Aurkariak dituzu beste jokolariak,

baina borroka-saioak edo delakoak garatzen ditugun bitartean, elkarri txantxak egiteko edo garagardo batzuk elkarrekin hartzeko denbora edukitzen dugu. Sekula ez dut ikusi itsusikeriarik edo xextrarik jokalarien diren torneoetan ere”.

Martinezek zehaztu duenez, zenbait giza-abilidade garatzen laguntzen dute joko horiek. “Hala nola, miniatuak margotzeko eskua, unean-unean estrategiak diseinatuzko trebezia, memoria, sozializazioa...”.



Scura Splats konpainiaren ikuskizuna da "Theos Foc". AIURRI

Trakak, orgak, koloretako bengalak eta su-gaztelua

"Theos Foc" ikuskizuna taularatuko du Scura Splats konpainiak, San Juan jaiei amaiera emateko

Erredakzioa ANDOAIN

Correfocs teknika erabiltzen duen ikuskizun ibiltaria da "Theos Foc". Egileen aurkezpen-txartelak honela dio: "Efektu pirotekniko ikusgarriekin, sinpletasun kontzeptualarekin eta erritmo ikaragarriarekin esze-

naratzen da. Kalejira efektu piroteknikoekin osatzen da, antzeppen osoan *in crescendo* doazenak. Trakak, orgak, koloretako bengalak eta su-gaztelu bat, besteak beste, Theos Foc-en egitura piroteknikoaren parte dira”.

MUJIKA TOLARETXIPI ANAIK
MAPFRE
ANDOAIN

Jai zorientsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8. ANDOAIN. 943 592 307. Faxa: 943 300 161. imujika@mapfre.com

MIZPIRADI
SAGARDOTEGIA

Gora Sanjuanak!

943 59 39 54

Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

gozologia

arruti

Enkarguak jasotzen ditugu

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN

Jai zorientsuak opa dizkizuegu!



Dantzaren grabazioa ikusgai dago youtuben, "Tango-Aurresku" izenburupean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Bakartxo Arabaolaza eta Joseba Pagola tango dantzariak "Tango-Aurresku" pieza sortu, koreografiatu eta grabatu dute berriki. Fusio askea izateko sortu bazuten ere kulturartekotasunaren ekimen dotorea egin dute, are gehiago, unibertsalitatez, Euskal Herriko eta Argentinako kulturaren adierazpenak uztartuta.

Garua Bilboko eta Durangoko tango elkarteak izan da ideien bultzatzaile. Alejandro Rodriguezek zuzendu du bi minutu eta erdiko iraupena duen dantza

Tango-Aurreskua, aurtengo jaietan

Bakartxo&Joseba Dantza Eskolaren erakustaldia izango da larunbat gauean, Goikoplazan. Bakartxo Arabaolazak emanaldia erritmoz beterikoa eta anitza izango dela ziurtatu du. Gainera, Tango-Aurreskua estrenatuko dute jendaurrean

erakustaldia, eta Santiago Ramosek eta Pedro Pablo Valcarcelek jarri diote musika.

Sortze-prozesua

Bilbon tango irakasleak dira Arabaolaza eta Pagola, eta hango elkarteak proposatuta landu dute pieza, esan bezala. Arabaolazak kontatu du nola izan zen sormen-prozesua: "Proposamenari baiezkua eman, eta musika izan genuen abiapuntu. Eta, hortik aurrera, koreografia sortu behar izan genuen ez dirudi, baina nahiko konplexua izan zen sormen-lana, tangoa eta Aurreskua pausoz pauso nahasteko eta bat egiteko".

Tango dantzari gisa ezin trebeagoak izanik, Aurreskuaren lanketak ekarri zien lehenbiziko buruhautea. "Euskal dantzako bi irakasleekin trebatu behar izan dut, nahiko ezezaguna baitzen dantza berezi hori niretzat behintzat. Helburuetako bat baitzen zorroztasunez eta duintasunez egitea dantza hori Tangoa bezainbat, eta ez edozein modutara".

Nolanahi ere, bi dantzen espiritua uztartuz sentimenduekin dantzatzea izan zela zailena aitortu du Arabaolazak. "Argi geneukan ezin zela automata batzuen moduan dantzatu, eta grabazioan saiatu ginen hori transmititzen".

Youtuben ikusteko moduan dagoenetik, dantza zaleen aldeetik zer nolako harrera izan duen azaldu du Arabaolazak. "Ikustaldi mordoia izan ditu dagoeneko interneten, eta oso gustuko dutela askok. Lagun batek egin zidana aipamena geratu zait kaskoan grabatuta: "Mutur-oker jarri nintzen jakin nuenean zer egitera zindoazten, gorroto baititut fusioak. Baina zuen bideoa

Gora Sanjuanak!

Urrats
inprimategia

Bluxak, kamixetak, zapiak, txapak...

Egin zuen kuadrillako ezaugarria

Urrats: 688 61 85 48

urrats@urratsinprimategia.com

Gau hori jaietarako prestatu!

Ondo pasa festetan!

Xarma
Andoain

943 32 77 26

xarma.andoain

Goikoplaza 8, Andoain 20140



Andoaingo konpainiaren erakustaldia larunbatean izango da, gaueko 22:00tan hasita. Argazkia 2017ko San Juan jaietakoa da. AIURRI

ikusi ahala, iritzi aldutzen joan naiz, eta lan bikaina egin ditzuela iruditu zait azkenerako”.

Larunbat gaueko lehen dantza-saioa izango da Tango-Aurreskua. “Espero dut gogokoa izatea estreinaldia andoaindarentzat”.

Edonor asebetetzeko ikuskizuna

Tango-Aurreskuaren estrainaldiaren ostean, jarraitu egingo du dantza-festak, bizi-bizi, etenaldirik gabe. Izan ere, ikusleak asebetetzeko moduko ikuskizuna eskaintzeko asmoa dauka eskolak, eta, horretarako, dantza mota ugariren erakustaldia egingo dute. Honatx zeintzuk diren dantza horiek: urbanoa, tangoa, salsa, bachata, urban kiz, eta timba errepartoarekin.

Guztira, 90 bat dantzari gaztek zein helduk interpretatuko dituzte dantza horiek jendaurrean. Eskolako ikasleak izango dira gehienak, baina ospe handiko dantzari profesionalak ere gonbidatu dituzte hitzordurako, izan bikoteka, izan bakarka. Josebak eta Bakartxok osatutako bikotearekin ez ezik, ikusleek honakoekin ere gozatu ahal izango dute: Eder eta Elena eta Ibane eta Nerea bikoteekin, eta, Imad Rbihi, Paolo Suarez, Mike Evens eta Marta Oteiza bakarlariekin.

Gaueko 22:00etan hasita, ordu-bete pasatxoko iraupena izango du ikuskizunak.



Andoaingo Olagain Udal Txistulari Elkarte. AIURRI

San Juan bezperako emanaldia Olagain Udal Txistularien eskutik

Jon Ander Belamendiaren zuzendaritzapean, eguerdiko 12:30ean emango diote hasiera Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Olagain Udal Txistulari Elkarteak kontzertua eskainiko du Goikoplazan, igande eguerdian. Nagusiki, euskal kantutegiari erreparatuko diote. Honatx, errepertorioa: "Eder", "A mi tierra vasca", "Galtzeta-buru / "Plateruena", "Uztai txiki dantza", "Baltzen potpourria IV", "Umetxoaren ametsak", "Banakoa, binakoa", "Vinu, cantares y amor", "Zeruarekin amestu dugu", "Erre zenituzten". Ainhua Aiertzta izango da aurkezlea eta haiekin batera ariko

dira Urki dantza taldeko hainbat lagun.

Txistulariekin batera ariko diren musikariak

- Gitarra: Javi Gestoso
- Baxua: Joxema Setien
- Biolina: Mikel Urdangarin
- Pianoa: Esti Sistiaga
- Kaxoia: Txomin Urdanpilleta
- Abeslariak: Garazi Jauregi eta Rebeca Gestoso
- Tronpetak: Aingeru Zabala eta Edorta Setien
- Zuzendaria: Jon Ander Belamendia



EGITARAUA: EKAINAK 21-25

EKAINAK 21

OSTIRALA

17:30 Txapa-tailerra, pankarta-margoketa Goikoplazan, Gazte Lokalak antolatuta. ☁ Eguraldi txarrarekin, Gazte Lokalean.

18:00 Sanjuanetako kartel-lehiaketako sari-banaketa, Goikoplazako frontoian.

18:30 Lebiton buruhandi eta erraldioen konpartsa, Olagain txistulari taldea, Udal Musika Eskolako eskusoinu taldea eta Gora Kaletxiki txaranga Goikoplazan elkartuko dira.

19:00 Pregoia Hurria Sahara taldearen eskutik udaletxeko balkoitik, eta jaien hasierako txupinazoa. Ondoren, Gora Kaletxiki txarangak Luis Fracaren "Andoain" musika pieza joko du.

21:00 Pala-jaialdia Arrate pilotalekuan eta erremontea: Aritz Eskudero eta Jon Irazu.

22:00 - 23:30 Kontzertua Goikoplazan: Mucedades.

23:00 - 03:30 Kontzertuak Nafarroa plazan: Feeling Good, Natural Project eta Niña Coyote eta Chico Tornado.

EKAINAK 22

LARUNBATA

10:00 Plater-tiroketa San Juan Saria, Ontzak antolatuta, Arkalen.

10:00 Pilota-partidak, Arrate pilotalekuan. Pilota Eskolako haurren txapelketako finalak.

10:30 - 13:00 16 urtez azpikoek xake-txapelketa Goikoplazan. Izen-ematea: 10:15. ☁ San Martin elizako arkupeetan.

12:00 Kantu kalejira. Maizorri txalaparta-eskolako txalapartariak, kalez kale, Goikoplazan hasita.

12:00 Dantza-erakustaldia: Klaap eskolako ikasleak, Goikoplazan. ☁ La Salle- Berrozpe ikastetxean.

12:30 Dantza-erakustaldia: Zumbatron. Zumbalokurak antolatuta, Goikoplazan. ☁ La Salle- Berrozpe ikastetxean.

14:30 Bazkaria Goikoplazan: txuleta-jana. ☁ La Salle- Berrozpe ikastetxean.

16:00 Sanjuanetako Gaztañaga zesta-punta txapelketa Arrate pilotalekuan: Benjamin, alebin eta infantilen kinielak, 22 urtez azpiko mutilen finala eta emakumezkoen San Juan txapelketako finala.



Alkatearen eta udalbatzaren soka-dantzak 25 urte beteko ditu aurten. Argazkia 2014koa da. AIURRI

16:30 Trikitilari eta pandero- joleen kalejira, Goikoplazan hasita.

17:00 - 19:00 Oria txaranga.

18:00 XXV. Bizikleta-festa. ☁ Ondarreta Herri Eskola.

19:00 Andoaindarrakoen danborrada: Goikoplaza, Agustin Leitza, Pio Baroja, Nafarroa plaza, Arteta, Agustin Leitza, Goikoplaza.

22:00 Joseba & Bakartxo dantza eskolaren erakustaldia, Goikoplazan: Joseba & Bakartxo, Marta Oteiza, Imad Rbihi, Eder eta Elena, Ibane eta Nerea, Paolo Suarez eta Mike Evens.

22:45 Zezensuzkoa Goikoplazan.

23:15 - 01:00 UT! taldearen kontzertua, Goikoplazan.

23:00- 02:30 Black Smoke eta Gatibu, Nafarroa plazan.

EKAINAK 23

IGANDEA

09:00 - 20:00 Warhammer 40K torneoa Basteron, Enderen Jokoa elkarteak antolatuta.

10:30 Sanjuanetako XVI. kross mistoa. 5 kilometroko ibilbidea. Irteera eta helmuga Pio Baroja kalean.

11:00 Gipuzkoako pala txapelketako finala Arraten.

11:15 Udal Musika Eskolako Mugaz taldeko ikasleen kontzertua, Goikoplazan. ☁ La Salle- Berrozpe ikastetxean.

12:30 Olagain Txistulari Elkartearen kontzertua hainbat kultur eragileren laguntzarekin, Goikoplazan.

15:15 XXXIV. Junior mailako Gipuzkoako Txirindulari Itzulia.

17:00 Warhammer torneoa 40K erakustaldia Plaza Morean, Enderren Jokoa elkartearen eskutik.

18:00 Udal Musika Eskolako bandaren kale-festa. Plaza Morean hasi eta Goikoplazan amaituko da.

18:00 Junior mailako Gipuzkoako Txirindulari Itzulia. Helmuga La Salle etorbidean.

19:00 Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako abesbatzen kontzertua San Martin parrokan.

20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena San Martin elizan, Alberto Agirre abesbatzak eta Udal Musika Eskolako abesbatzek kantatua. Andoaingo herriak, Agustin Leitza seme kuttunari esker onez.

20:15 Alkatearen eta udalbatzaren soka-dantza Goikoplazan.



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



ikastolen elkartea



*San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.*

ELIZONDO

FERRETERIA **TABERNA**

CORRA SANJUANAK!

La Salle etorbidea, 1- Andoain

Ferreteria Taberna

943 590 302 943 592 802



Herriko eragileak hurbildu ziren jaien aurkezpenera, aurreko astean. AIURRI

21:30 Olagain txistulari bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta kalea, Zumea kalea, Kale Nagusia, Goikoplaza.

22:30 Suziri, txalaparta eta kanpai-errepikarekin, San Juan sua. Herriarren suaren inguruko dantza eta ohiko emanaldia: Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako abesbatzak, Udal Musika Eskolako banda eta txistulari banda. Ondoren, Euskal dantzen emanaldia Urki dantza taldearen eskutik.

22:45 Agustin Leitzaren danborrada. Ibilbidea: Agustin Leitza, Goikoplaza, Kaletxiki, Arrate, Pio Baroja kalea, Joxe Mari Iturzaeta kalea, Arteta eta Agustin Leitza.

23:30 - 01:00 Kuttune Goikoplazan.

23:00 - 02:00 Dukkha eta Sua Nafarroa plazan.

EKAINAK 24

ASTELEHENA

08:30 Diana dultzaineroekin.

10:30 - 14:30 Artisautza eta janari azoka Goikoplazan, Gabilta eta Napar Bideak elkarteekin. ☔ Ondarreta Herri Eskolako patioan.

11:00 Meza nagusia San Martin parrokiaren, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.

11:30 Munduko zaporeak: Atzerritar jatorriko andoaindarrek beren lurraldeko pintxoak eskainiko dituzte, Goikoplazan.

12:00 Axeri Dantza herrikoia Goikoplazan.

12:00 - 14:00 Tapizak egiteko tailerra, artisautza azokan. Egindako piezak azokara hurbiltzen direnen artean oparituko dira.

13:15 Pilota partidak: kontzejupeko txapelketako finalak.

17:00 - 19:00 Tapizak egiteko tailerra, artisautza azokan. Egindako piezak azokara hurbiltzen direnen artean oparituko dira.

17:00 - 20:00 Artisautza eta janari azoka Goikoplazan, Gabilta eta Napar Bideak elkarteekin. ☔ Ondarreta Herri Eskolako patioan.

17:45 Herri kirolak Goikoplazan. Aizkoran, hainbat modalitate: zutik, azkartasun froga, 10 kana-erdi jarraiko lana, trontza. Bikotekako lehian: 1. Iker Vicente eta Iñaki Azurmendi; 2. Ugaitz Mugerza eta Julen Alberdi "Txikia". Harria jasotzen: Mikel Lopetegi "Urra", Lierni Osa eta Ainize Zumeta eta Maddi Gesalaga. ☔ Arrate pilotalekuan.

18:15 Dj Bull kalez kale, Plaza Moretik Goikoplazara.

19:30 Bertso jaialdia Goikoplazan: Oihane Perea, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Andoni Egaña, Maddi Ane Txoperena eta Agin Laburu. Gai-jartzailea: Unai Ormaetxea. ☔ La Salle- Berrozpe ikastetxean.

22:00 Dj Bullen Goikoplazan.

22:30 Dronen ikuskizuna Goikoplazan.

22:45 Zezensuzkoa Goikoplazan.

23:00 Olgetan Goikoplazan.

23:00 Dupla Nafarroa Plazan.

EKAINAK 25

ASTEARTEA

10:00 - 14:00 Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka... ☔ Ondarreta Herri Eskolan.

13:30 Agintarien harrera laurogei urteko andoaindarrei, udaletxe aurrean. Bazkaria Basteron.

17:00 Ipurbeltz ikuskizuna, Zumea plazan.

18:00 Haur danborrada: Aita Larramendi ikastola, Ondarreta Herri-Eskola eta La Salle-Berrozpe ikastetxeetako ikasleen eskutik, alkate txikia eta herriko ordezkariak buru direla. Ibilbidea: Zumea plaza, Kaleberria, Kale Nagusia eta Goikoplaza.

19:30 - 20:30 Beñat Fernández, "Pelontxu", andoaindarren moto erakustaldia Nafarroa Plazan. ☔ La Salle- Berrozpe ikastetxean.

21:00 - 22:30 Puro Relajo Goikoplazan.

22:30 "Cavaltheos" ikuskizuna. Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.

Euskal Herriko trofeoa KEINUko txapela da!!!

Goikoplaza, 5. ANDOAIN.
637 283 224
keinuandoain@gmail.com

GORA SANJUANAK!

KEINUKO XI. PROTA TXAPELARI ERREKORDA
 ANDOAIN 2014-2015

80

S.A.C.A. DE LEIZA

KEINUKO XI. PROTA TXAPELARI ERREKORDA
 ANDOAIN 2014-2015

KEINU

S2

SALKIN
bertatik bertara

Mantendu bizirik zure herria.
 Kontsumitu eta gozatu!


Gora Andoain eta San Juan jaiak!



Haurren eta txakurren kopurua, herriz herri



15 urtetik beherako biztanleak Txakurrak



Erregistratutako 1.356 txakur daude Urnietan eta 15 urtetik beherako 780 lagun bizi dira herrian. Andoainen 2.193 txakur daude erregistratuta eta 15 urtetik beherako 2.150 lagun bizi dira herrian. Txakurrak eta gaztetxoak kontuan hartuta, alde nabarmena dago Andoaindik Urnietara. TOKIKOM

Estatistikaren begiradapean

Gizakiei estuki lotutako animaliak dira maskotak. Konfiantza, maitasuna, sostengua, segurtasuna, konpainia... Arrazoa edozein dela ere, jabeen egunerokoan pisu handia hartzen duten animaliak dira, etxeko kide garrantzitsu bilakatzeraino

Alba Cabera Jauregi URNIETA

Zein da gurean errealitatea, ordea? Zer diote ikerketek? Zer, zenbakiak? Ba al dakizu, irakurle, zenbat animalia bizi diren zure inguruko etxeetan, baserrietan? Zenbakizko hurbilpen batekin egingo duzu topo datozen lerrootan, etxekotutako animalia lagunkoiak gertuagotik ezagutzeko asmoz. Azalpen argigarri gisa aipatu, batez ere txakurrak direla hizpide, ikerketetan batez ere animalia horiek baitituzte aztergai nagusi.

Europara begirada zabaldua, Maskotenzako Elikagaien Industria Europarraren Ahotsa erakundeak (FEDIAF) 2022an bildutako zenbakiak diote, maskoten artean, katuak direla nagusi.

Eta, haien atzetik, hurrenez hurren, segika dituzte txakurrak, txoriak, ugaztun txikiak, arrainak eta narrastiak. Espainiako Estatuari erreparatuta, berriz, aldatu egiten da ordena nagusia, izan ere, txakurrak dira etxeko konpainiarako gehien hartzen diren animaliak. Hego Euskal Herrian ere, joera bera daukate datuek, Etxeko Animalien Identifikazio Erregistroa (RIAC) erakundearen ikerketa batek aditzera eman duenez. Hori ez ezik, txakurrak ere eremu publikoa gizakiekin gehien partekatzen duten maskotak omen dira, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan. Gainera, ikusi da, orokorrean, zenbat eta handiagoa izan biztanleria eremu batean, orduan eta han-

diagoa dela animalia horren kopurua.

Bide horretan, aurretik aipatutako lotura horri eutsi dio Etxeko Animalientzako Elikagaien Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala erakundeak (ANFAAC), RIAC eta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (EIN) elkarlanean, hain justu ere, parez pare ipini eta alderatu egin baitituzte ikerketa batean txakur-kopurua eta biztanleria. Argia da irakurketa: biztanleko txakur-kopuru txikiena duten erkidegoen artean kokatzen da EAE, Espainiako Estuaren mugetan oinarrituta, hots, 1,5 txakur daude, batz bestea, hamar biztanleko.

Zergatik izaten ditu txakurrak jendeak, eta batez ere, zertarako?

RIAC-ek du erantzuna: 432.000 mila txakur daude erregistratuta Hego Euskal Herrian. Gipuzkoaren kasuan, guztien % 66k jabeari konpainia egiteko du maskota hori; ehiza-jarduerarako % 25,4k; zaintzarako % 8,3k; eta, azkenik, "beste xede" batzuetarako (besteak beste, gida-txakurra, laguntza eta kirol-erabilera) % 0,3k.

Geroz eta abegitsuagoak

Ardura dakar maskota bat izateak, elkarbizitza-unitatearen parte den momentutik, bere premiei eta nahiei arreta handia jarri behar izaten diotelako jabeek, animalia ongezatea bermatze aldera. Horrela, maskoten zainketa bideratutako guneak izaten dira herrietan. Eustat eta EINren ikerketa batek dioenez, albaitaritza-zerbitzua eskaintzen duten 1.458 establezimendu daude, orotara, Hego Euskal Herrian.

Halaber, 101 denda daude maskotenzako produktuetan espezializatuta, Eustat eta Googleko zenbakiak erreparatuz gero. Dena dela, eskaintza horri txikizkako merkataritzako beste zenbait establezimendu batu behar omen zaizkio (supermerkatuak, esaterako), maskotenzako produktuak dituztelako salgai (higienea, elikadura, jostailuak...).

Aisialdiaz ere mintzo beharra dago, maskoten osasunari buruz

Andoaingo eta Urnietako datuak

Andoaingo nahiz Urnietako zenbakien azterketan, bada lehen begi kolpean nabarmentzen den datua: hamabost urtetik beherako biztanleak baino txakur gehiago dago bi kasuetan, Eustatek eta EINek egindako datu-bilketaren arabera.

Urnietara jauzi eginda, erregistratutako 1.356 txakur daude herrian, 96 katu eta bestelako 6 maskota. Guztira, 2,2 txakur bizi dira 10 biztanleko: % 61 konpainiarako; %31 ehizarako; % 8,1 zaintzarako eta artzaintzarako; % 0,1 bestelakoetarako. Hori horrela, Urnietako familien % 35,9k du txakurra. Hamabost urtetik beherako 780 lagun bizi dira herrian, hau da, 10 umeko 17,4 txakur daude Urnietan.

Zer gertatzen da Andoainen kasuan? Joera berbera dute datuek, nahiz eta emaitzak lausoagoak izan. 2.193 txakur daude herrian, 219 katu eta bestelako 2 maskota. Beste era batera esanda, 1,48 txakur bizi dira 10 biztanleko Andoainen: % 65 konpainiarako; % 29 ehizarako; % 5,5 zaintzarako eta artzaintzarako; % 0,1 bestelakoetarako. Hala, herriko familien % 22,7k du txakurra. Hamabost urtetik beherako 2.150 lagun bizi dira Andoainen, hau da, 10 umeko 10,2 txakur daude herrian.

jardutean. Hari horri tiraka, EAEko turismo-erregistroan zein Booking-en sartuta, 346 hotel daude izena emanda Jaur-laritzako Turismo Sailean Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, eta horien % 28,61 Pet Friendly dira, maskotak onartzen baitituzte beren instalazioetan.



“Txakurrak arretaz zaintzen dituen txokoa da Orekan Borda”

AITOR BARRENETXEA LERTXUNDI OREKAN BORDA TXAKUR EGOITZA URNIETAN Txakurren egoitza du Urnietak, Goiburu auzoan kokatuta. Luze edo motz, denbora-tarte batez, bertan gelditzen diren txakurren zainketaz arduratzen dira

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Zenbat urteko ibilbidea du Orekan Bordak?

Zazpi urte beteko dira urrian Orekan Borda ireki nuenetik. Eskualdean horrelako zerbaiten beharra zegoela sentituta, aurre-rapausoa ematea pentsatu nuen. Nik neuk bakarrik hasi nuen bidea. Lehenago ere animaliekin egiten nuen lan, garraio-lanetan. Baserriak husten hasi ziren eta, lanak beherantz egin zuela ikusita, honetan sartzea erabaki nuen. Bi anaia ginen, eta berak horretan jarraitzea erabaki zuen. Ni honetan sartu nintzen, eta zazpi urte igaro dira; gusturago, jarraitzeko gogarekin.

Ezagutzen al zenuen tankerako espaziorik? Ba al zenuen nola-baiteko erreferentziarik?

Ehiztaria naiz eta Setter ingelesak hezten ditut. Iruña aldeko lagun nafarrek Orekan Bordaren antzeko toki batean izaten zituzten txakurrak. Hura ikusi nuen eta, harrezkero, bueltakabuektaka buruan, hemen ere martxan jartzeko. Lehen esan dizudan lan horretan eritimoa jaitzi zenean, honetan murgildu nintzen. Gaur egun, nik neuk jarraitzen dut, soilik, lan egiten hemen.

Zein da zure egunerokoa Orekan Bordan?

Etorri, guztiak garbitu, askatu eta jaten zein edaten eman. Txakur askok urte osoa ematen dute hemen. Beren nagusiek egoitza-



Aitor Barrenetxea Lertxundi hernaniarra da Orekan Borda negozioaren arduraduna. AIURRI

ko giltzak dituzte, eta txakurra ateratzera etorri behar dute. Gainerako zainketa nik egiten dut. Beste batzuek, berriz, asteburuetan edo opor-sasoian ekartzten dituzte, soilik, denbora-tarte jakin baterako. Horien kasuan, egunean birritan ateratzen ditut, alboan daukagun parkera: ordubete goizean eta beste bat arratsaldean.

Zer dela eta izaten ditu jendeak txakurrak urte osoan Orekan Borda egoitzan?

Orokorrean, ehiztari jendea izan ohi da, bizpahiru txakur dituzte, eta etxebizitza batean bi edo hiru txakur edukitzea... Ez dakit, horrek ekarri dezakeenagatik. **Urteko zein sasoiari edukitzen dituzu txakur gehien?**

Aste-bukaeraro, bat, bi, hiru txakur ekartzen dituzte. Aste Santuan, bete egiten da; ekainaren bukaeratik irailera bitarte, ondo egiten dut lan ere. Ondoren, urte amaieran, Gabonetan ere jendeak ekarri ohi du bere

txakurra. Jai egunen eta zubien arabera ere izaten da, aste-bukaerak luzatzean, sarrera gehiago egoten direlako gurean.

Nagusiki, nondik etortzen zaizu jendea?

Txoko guztietatik, antza denez, Orekan Borda bezalako tokien behar handia dago eta. Jendeak, azken momentuan deitzen du, bere inguruan ez duelako, jada, tokirik aurkitzen, deika eta deika aritu eta bete-beteta daudela. Etorri izan zaizkit Gipuzkoa osotik, baita Bizkaitik, Arabatik eta Errioxatik ere. Berehala betetzen da.

Nola irudikatu behar du irakurleak Orekan Borda?

Txakurrak arretaz zaintzen dituen txokoa da Orekan Borda, eroso egoten dira hemen. Nahiz txakurra barruan egon, bere boxean, kanpora ateratzeko aukera dauka. Horri garrantzia ematen diot. 1.400m²-ko parkea daukat, gainera, hesituta. Alegia, ez dago lau paretan artean sartuta txakurra. Aldi berean, gutxi gorabehera, 110 bat txakur-errentzako gaitasuna du egoitzak. Baina, kontuan hartu behar da, batzuetan, zenbait txakurrek bakarrik egon behar dutela, ez direlako oso sozialak edo ez direlako ondo konpontzen beste txakur batzuekin. Bezeroei ere galdetzen diet, ea zer moduz moldatzen diren beste batzuekin espazioak partekatuta, eta horren arabera antolatzen naiz.

Gutxieneko irizpiderik bete behar al dute txakurrek Orekan Bordan egoteko?

Adina ez da arazo bat izaten. Txakur bakoitzak bere Pasaportea dauka. Bertan, txerto guztiak erregistratua izaten dituzte. Hala, eguneratua egon behar du dokumentuak. Txakur-etzularen kontrako txertoa izatea bereziki eskatzen dugu, oso kutsakorra delako. Era berean, urteak dira, jada, ez ditudala arraza arriskutsuko txakurrak hartzen.

Nola bizi dute txakurrek Orekan Bordan gelditzea?

Gehienbat jabeei kostatzen zaie txakurra hemen uztea. Bada txakurra hona ekarri eta, handik hiru ordotara, beregatik galdezkadeitu duenik. Txakurra ondo dago, lasai, atera eta korri eta beste txakurrekin jolasean... Nire ustez, arazoa nagusia da gehiago.

Zazpi urte damarazu honetan. Ba al da deigarria egin zaizun aldaketarik, joerarik?



Datu-kazetaritza

EITBk eta Tokikom tokiko komunikabideen sareak sinatutako lankidetzakordioaren emaitza da Saretzen. Egitasmoaren helburua da datu kazetaritza elkarrekin lantzea, BBCren 'Local News Partnership' ereduari jarraituz. Hain zuzen ere, euskal esparru komunikatiboa garatzea eta trinkotzea da xedea, biztanleriaren informazio beharrianak asetzeko eta, bide horretan, tokiko eta nazio esparruko komunikabideen arteko elkarlan-eredu bat lantzeko.

Orain dela lau urtetik bete egiten zait Orekan Borda. Batzuetan, jendeari ezezkoa eman beharrean izaten naiz. Boxetan sartu daitekeen txakur-kopurua ondo errespetatzen dut, eta, askotan, ezezkoak eman behar izaten ditut. Berandu bazabiltza, lekurik gabe gelditzen zara.

Erantzukizuna da maskota bat edukitzea. Zure ustez, horren jakitun al da jendea txakurra etxera ekartzten duenean?

Denetatik egokitu zait hemen, txakurra gainetik nola kendu ez dakiena ere bai, "jakin izan banu... Ezagutzen al duzu txakur bila dabilen norbait?". Badaude kasuak, bai.

Horren aurrean, zein gomendio emango zenuke?

Txakurra dela urteko 365 egun. Nahiz eta egun txarra izan, jaramon egin behar zaiola txakurrari. Txakurrek ez dute egun txarrik izaten, beti berberak dira, beti ongi-etorria egingo dizute. Gu gara egun aldrebesak ditugunak.

Orokorrean, txakurra osasuntsu egonez gero, beti egun ona izaten du.



Mendi txakurra gogoan hartzeko lepokoa

Lepokoa txakur baten hatz-markaren itxurakoa da eta, barruan, kristaltxo batean, Mendiren irudia ageri da. Lepokoak badu aukera bat, ikusgarri bilakatzen duena: eskuko telefonoaren linterna lepokora gerturatuz gero, paretan Mendiren irudia ageri da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Arrasto sakona uztera iritsi dira animaliak, jendartean. Eta, heriotzaren ostean, txakurra gogoan hartzeko hamaika aukera dago. Dolua gertu bizi dute, sasoi honetan, Alba Blancok eta Irati Roscok. Urnietan bizi dira, eta Mendi txakurra oso gertukoa zuten. Animalia jabea, berez, Juanito Blanco zen, baina hark lantegian eta tabernan ordu asko ematen dituela-eta, ohikoa zen Blanco eta Rosco Mendirekin pasieran ikustea.

Duela gutxi, ezusteko latza izan zuten. Egun hartan Juanito kanpoan zen, eta Roscok hartu zuen Mendi kalera ateratzeko ardura. Trenbidetik gertu zebiltzala, hegaztiren baten peskizian-edo, ziztu bizian atera zen. Zoritxarrez, une horretan trena bertatik igerotzen ari zen, txakurra aurretik eramanez. Atsekabe latza izan zen Roscorentzat: antsietateak jota, ezinean geratu zen. Ezbeharrak izan orduko, atsekabea zabalduz joan zen Mendi zaintzen zutenen artean.

Animalia burutik kendu ezinik, ideia bat izan zuen Albak: In-




Alba Blancok lepoko berezia oparitu zion Irati Roscok. AIURRI

terneten ikusi zuen bazirela maskota gogoan hartzeko produktua, eta lepoko berezia erosi zuen. Lepokoa txakur baten hatz-markaren itxurakoa da eta, barruan, kristaltxo batean, Mendiren irudia ageri da. Badu aukera bat, ikusgarri bilakatzen duena: eskuko telefonoaren linterna lepokora gerturatuz gero,

paretan Mendiren irudia ageri da. Etxean jaso eta proba egin orduko, zirrarari ezin eutsiz, negarra gogotik egin zuten Alba Blancok, haren osaba Juanitok Blancok, Irati Roscok eta haren aita Txominek.


Izan ere, arrasto sakona utzi du Mendik, lau protagonisten bihotzean.



Lepokoa da Mendi. AIURRI



Linterna piztu behar da. AIURRI



Paretan irudia ageri da. AIURRI



Mendi txakurra. AIURRI



Juanito Blanco urnietarra. AIURRI

“Ez dut txakurrik sartuko etxean”

JUANITO BLANCO
EHIZTARIA

Txakurra biziki maite du, baina ez etxean sartzeko

Jon Ander Ubeda URNIETA

Tailer batean ari zara lanean eta soldata osatzeko Kantoin ari zara. Txakurrekin egoteko tarterik al duzu?

Bai. Tailerraren parean dudalako txakurren etxola, eta lanetik atera eta jana eman, garbitu eta kalera ateratzen ditut. As-tebururo, mendira noa, txakurrak lagun hartuta.

Ehizaz harago, beraz, gustuko dituzu txakurrak.

Konpainia handia eskaintzen du animaliak. Ezkongabea naiz, eta nire bidaideak direla esan dezaket. Ez dut txakurrik sartuko etxean, oso argi daukat hori. Ez dut hori nire bizitzan sekula egingo. Ez dakit nola sartzen duen jendeak txakurra etxean. Badira ohera sartzen dituenak ere. Ulergaitza zait hori. Txakurrak ez dira pertsonak. Albaitari batek egingo lukeen bezala zaindu behar da, hori bai.

Etxola batean dituzu, beraz, gordeta.

Halaxe da. Baratzea dugu eta bertako etxolan ditugu txakurrak. Oso zainduta dauzkat, laguntzaile eta guzti ditudalako. Ezinezkoa zaidanean Iratik, Albak, Antoniok edo Txominek ordezkatzen naute. Txakurrak ez dira kalera irten gabe eta janik eman gabe geratzen.

GURE USTEZ

EZEIZA ZAPIAIN FAMILIA URNIETA

"Blak oso leiala da, oso zintzoa"

Familiako beste kide bat gehiago da Blak guretzat. Berdin du nora goazen, gurekin baitator beti. Askotan, autokarabanarekin joaten gara oporretan eta bertan ere bere txokoa du.

Harreman estua dugu eta oso leiala da, oso zintzoa. Esaten diogun guztiari jaramon egiten dio, eta oso ondo ulertzen dugu elkar, komunikazio handia daukagulako, nahiz eta txakurrak ez jakin hitz egiten. Konpainia handia egiten digu: deigarria da, bat sukaldean egonez gero, eta bestea egongelan, tarteko bidean jartzen da bera. Gainera, oso jatorra da etxera datorren edozeinekin. Oso zaintzailea da gurekin, bai etxe barruan, bai kanpoan, mendian ibiltzen, adibidez. Txakur lagunkoia da eta herrian jende askok ezagutzen du. Izugarri maite dugu, goxotasuna emateko eta hartzeko prest da, beti!



EZEIZA ZAPIAIN FAMILIA



"Bat gehiago da etxean"

ALEX DE LUCAS ETA MAIALEN SANTA CRUZ XUA TXAKURRAREN JABEAK

Sei urte eta erdi ditu Xuak, eta azaroan zazpi beteko ditu. Lasterka hara eta hona ibili ohi dira inguruotako mendialdean

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Txakurra, zuen kasuan, kirola egiteko kide egokia duzue. Andoainen zeintzuk dira toki kuttunak?

Andoainen leku zoragarri asko ditugu eta pribilegiatu batzuk gara: Belkoain, Buruntza, Adarra, Trentxikiko pasealekua... Bakarra aukeratzekotan, kanalekako buelta esango genuke; jende gutxi ibiltzen da eta, gainera, itzal handia dago.

Xua oraindik sasoiko dago, baina egia da adinean gora doala eta hori nabari da. Hala ere, mendian korrika ibiltzea oso gogoko du eta, ahal den bitartean, berarekin gozatzeko jarraituko dugu.

Zer ematen dizue txakurra izateak etxean?

Konpainia eta maitasun handia, etxean bat gehiago da. Nirekin (Alex) lanera joaten da eta, beraz, egunero laguntzaile izaten dut. Hala ere, esan beharra dago txakur bat izateak lan eta denbora asko eskatzen duela.

Bitxikeriarik badu kontatzeko? Pasadizoren bat, mania bereziren bat?

Etxera ekarri genuenean herri-tik kanpo zegoen. Mendiko baserri batean bizi zen, hortaz, ez zuen zibilizazioarekin harremanik. Hori dela eta, beldur dextente du. Jende asko dagoen lekuetan erraz estutzen da eta eguzkitakoei beldur handia die, ez dakigu zergatik. Ahal badu



Alex de Lucas eta Maialen Santa Cruz, Xuarekin batera. SANTA KRUZ

eguzkitakoa inguratu egiten du, azpitik ez pasatzeko.

Horren harira, Xuak eta biok (Alex) Euskanikross Canicross txapelketako hiru lasterketetan parte hartu genuen. Irteerak oso zalapartatsuak izaten dira, zakurrak zaunka, ezinegon handiko momentuak izaten dira eurentzat. Xua lasterketan oso gustora ibili zen, baina irteerako momentu horietan asko sufritzen zuen. Maialenek, ikusleen artean, irteerako momentu horietan asko sufritzen zuen. Xuaren egoera ikusita, beldurra

dagoen bitartean behintzat gehiago ez parte hartzea erabaki genuen.

Denbora tarte honetan haurra jaio da. Asko aldatu da zakurra? Eta zuen bizimodua?

Haurrekin beti oso ongi moldatu izan da, ilobekin asko egon da eta zentzu horretan ez dugu aldaketarik nabari. Haurra jaio arren, berari denbora eta mimoak eskaintzen saiatzen gara albo batera utzi dugula senti ez dezan. Gure bizimodua aldatu egin da, noski, baina pixkanaka martxa hartzen ari gara eta Xua ere gurekin batera bizitzeko etapa berri honetara egokitzen ari da. Etxeko txikia lau hantetan berarengana hurbildu eta iletik tiraka hasi da jada, beraz, adi ibili beharra dugu.

Nola konbentzituko zenuke zakurrik etxean ez duenari euren etxean hartzeko?

Ez gineteke konbentzitzen saiatuko. Txakurra etxean izateak denbora eta lan handia eskatzen du eta txakurra eduki nahi izatea ez da nahikoa. Norberak garbi izan behar du horretarako aukera duen edo ez, eta horren arabera erabakiak hartu. Egunerokoan txakurra kontuan izan behar da, asteburuan planak egiterako garaian, oportetara joatean... Ez da beti erraza izaten, baina, behar duena emanez gero, txakurrak bueltan ematen ditu.

"Txakurra da, oraindik orain, maskoten artean nagusi"

JON OTXANDORENA ALBAITARIA

Juan Bautista Erro kalean da Mimendi albaitaritza



Jon Otxandorena albaitaria, Juan Bautista Erro kalean duen negozioan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Badira urteak Andoainen lanean ari zarela, maskoten artean. Noiztik, zehazki?

1992an ekin genion lanari, beraz, 32 urte dira geroztik. Kontuak aterara, aurreko mendetik gaurde hemen, kar kar.

Bezero fidel ugari izango dituzue, honezkerok.

Hala da, bai. Hasiera-hasierako bezeroekin jarraitzen dugu lanean. Animalia txikiekin ari gara lanean, ia erabat. Katuak eta, gehienbat, txakurrak.

Joera aldaketa izan da maskota aukeratzeko orduan?

Zainketari dagokionez, jabeak geroz eta gehiago eta hobeto zaintzen du maskota. Denbortarte honetan kontzientzia hartu du jendeak. Kalean kaka jasotzen duen geroz eta jabe gehiago daude, nahiz eta alor horretan lan asko egiteke dagoen egiteke.

Maskota bat izateak sortzen duen ardurari dagokionez, hobetzen ari da gizartea.

Txakurrak eta katuak, zein artatzen duzu gehien?

Txakurra da, oraindik orain, maskoten artean nagusi.

Urteotan internet sarean zabaldu den salmentak kalte handia egin dizue?

Bai. Eta gehiago esango nuke, informazio-iturri nagusi bilakatu da eta, askotan, maskotaren jabeak arreta gehiago jartzen dio youtuber edo instagramer bati, albaitariari baino.

Zer esango zenieke bezeroei?

Profesionalen lana balioan jarri behar da. Medikura presentzialki joaten gara. Bada, gauza bera egin beharko genuke maskotekin. Egoera beretsuz ari gara.

"Bulo", esames edo "fake news"engan arreta jartzea kaltegarria da, garaiotan.

"Maskoten osasuna bermatzea premiazkoa da"

PABLO TRONCOSO ETA LILI CHAVEZ KUKULCAN DENDA

Zerbitzu integrala eskaintzen dute La Salle hiribidean

Erredakzioa ANDOAIN

la bi urte dira Kukulcan negozioa zabaldu zenuenetik. Ondo doakizue?

Geroz eta lan handiagoa izaten ari gara. Ezagutera ematen ari gara Andoainen, eta inguruko udalerrietan.

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Txakurrentzat ile-apaindegia, maskotentzat janaria eta produktu osagarrien salmenta, albaitaritza-aholkularitza zerbitzua. Horiez gain, hezitzaile bat gurekin ari da lanean.

Gertuko harremana da dendariak aldeko duten balioa.

Bai. Bezeroarekin hitz egitea oso gogoko dugu eta jabearen animalia xehetasun guztiak hizpide izaten ditugu. Aurrez aurreko harremana funtsezkoa da animalia ohiturak eza-gutzeko. Ile-apaindegi zerbitzuak ez du, bere horretan, zerbitzu estetikoak izan behar. Mendian eta aske ibiltzeko ohitura duten txakurren kasuan orrazkera estetikoak egiteak ez du zentzurik.



Chavez eta Troncoso, Kukulcan dendaren atarian. AIURRI

Zuen produktuen salmenta zenbateraino dago on-line bidezko ohitura berriengatik baldintzatuta?

Lehia gogorra dugu interneti erreparatuz gero. Baina saiakerak handia egiten ari gara. Promozioak eta bestelako eskaintza bereziak eskaintzen dizkiegu bezeroei.

Modak zenbaterainoko eragina du maskoten artean?

Izan zen "boom" modukoa, baina dagoeneko maskotarekiko kontzientzia hartu duen jendea gehiengoa da.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA




GORA ETA BEHERA



AIURRI

Kulturartekotasuna

Udal Musika Eskolako txikien, gazteen eta helduen abesbatzek, Ongi Etorri Eskolarako ekimeneko kideekin batera, ikasturte amaierako emanaldi bereziari amaiera borobila eman zioten. "Joxe Migelen Batela", "Aldapeko" eta "Oye" Ghanako kantua abestu zituzten.



AIURRI

Ibilbide gidatua, Alberdi gogoan

Juankar Alberdi urnietarra gogoan, "Memoria Ibilbidea" egin zuten aurreko larunbatean, udalerrian barrena. Lore eskaintzaren eta ibilbide gidatuaren argazki-bilduma eta bideoak ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. Osasunez sano zegoela, eta kartzela barruan jasan zuen mediku arretoa faltagatik, duela 36 urte hil zela salatu zuten Urnietan.



Lehen lau sailkatuak, argazkian. Erdian, txapela jantzita, irabazleak: Jabier Baltasar eta Iñaki Egues. AIURRI

Mus-txapelketa, Ontzan

Giro ederrean eman zioten amaiera Ontza elkartearen 48. urtemugari. Azken txanpan, elkartearen bete zuten. Sari-banaketaren ekitaldia eta gero, afaria egin zuten. Eta, afalostean, hirugarren denbora: mus-txapelketa azkarra

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko ostiralean mus txapelketaren 48. edizioko finalak jokatu ziren Ontza elkartearen. Finala amaituta, giro ederrean egin zuten afaria. Egungo zuzendaritzak, gainera, maila bikaineko afaria prestatu zuen: Karrillerak saltsan, langostinoak eta urdaiazpikoa. Eta, afalostean, bertan zirenen arteko mus azkarreko txapelketa egin zuten.

Sailkapena

Aste batzuk lehenago hasi zen txapelketa, 21 bikoteraren parte-hartzearekin. Honatx, lau onenak:

1. Jabier Baltasar-Iñaki Egues.
2. Joxe Mari Tolosa-Klaudio Mendikute.
3. Iñaki Jauregi-Jon Berrobi.
4. Rafa Herranz-Jose Luis Mendiluze.



Karrillerak, maila gorenekoak, zuzendaritzako kideen eskutik. AIURRI

Babesleei eskertza

Txapelketa antolatzeko garaian, babesleen ekarpena ezinbestekoa da. Antolatzailerek eskertza adierazi nahi diete babesle guztiei: Covylsa, Arriaga ardoak, Comercial Satrustegi, Beerlagun,

Ayestaran, Sein Izarra, Iprolin, Qualianza kafeak, Gaztañaga, Alorrenea, Mizpiradi, Ameztoi, Frila, Sarasola ikatzak.

Aiurri.eus gunean Joxe Mari Tolosaren eta Beñat Erkiziaren adierazpenak aurki daitezke.



Prozesua martxan da. AIURRI

Informazio-karpa jarriko dute Urnietan, ostiral honetan

Partaidetzako aurrekontuei lotuta dago, eta 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal dezakete

Erredakzioa URNIETA

2025eko Udal aurrekontutik 150.000 euro herritarrek zuzenean erabakitzeko aukera izango dute. Kanpaina dagoeneko martxan da eta ostiral honetan aurrez aurreko xehetasunak eskaintzeko informazio-karpa zabalduko dute. Goizez eta arratsaldez ariko dira, bi kokapen ezberdinetan:

- 10:00-14:30- Etxeberri plazan.
- 17:00-20:00- Zubitxo plazan.

Zein proposamen argi duten herrikideek, ohiko moduan, hainbat bide dituzte proposamena helarazteko:

- Urnieta.eus.
- Urnieta APP
- Udalerriari jarritako buzoi eta kutxak.

Ekainak 30, azken eguna

Urnietan erroldaturiko 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte prozesuan. Epea datorren ekainaren 30ean amaituko da. Udalak berrikuntza bat azpimarratu nahi izan du, aurtengo ekinaldiaren aurkezpenean: "Aurtengo aurrekontu irekien parte-hartze prozesua nobedade garrantzitsu batekin dator, izan ere, proposamenak egiteaz gain, urnietarrak izango dira gauzatuko diren proiektuak zuzenean aukeratuak dituztenak".

HITZORDUAK

ZABALKUNDERAKO. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus



San Juan bezperako ospakizuna Urnietan. Argazkia 2019koa da. AIURRI

URNIETA San Juan bezperako ospakizuna

Udako solstizioaren hasiera Akelarrearekin ospatuko dute. Sorginek antolatuta, Txanbolin eta eragile gehiagoren lankidetzarekin antolatzen dute festa. Iluntzean kalejira egin ostean, emanaldi nagusia Plazido Muxikan izango da. **Ekainak 23, igandea. 22:00, Plazido Muxika plaza. Urnieta.**

OSTIRALA 21

ANDOAIN Erakusketa

Maddi Zumalabe Irastorza artista. **Bastero, erakusketa gela.**

ANDOAIN Merkataritza

Udalak sustatu dituen bonoak erosteko kanpaina martxan dago. **Azken eguna: Ekainak 30.**

ANDOAIN Deialdia

'Euskaraz barra-barra' marka herriko merkataritzan eta ostalaritzan zabaltzen jarraitzeko kanpaina. **Kanpaina martxan da.**

OSTIRALA 28

URNIETA Lehiaketa


Sanmielak 24 jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Saria: 500 euro. Jatorrizko lanak Bertan bulegoan aurkeztu behar dira. Oinarriak: Urnieta.eus. **Azken eguna: Ekainak 28.**

IGANDEA 30

URNIETA Parte-hartze prozesua 16 urtetik gorakoek aurkez ditzakete proposamenak. **Azken eguna: Ekainak 30.**



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Se abre la veda
Larunbata, 22.
19:30, 22:00.
Ig, 23. 19:30.
Asti, 24. 19:30.
Astr, 25. 19:30.

Hitman
Larunbata, 29.
19:30, 22:00.
Ig, 30. 19:30.
Asti, 1. 19:30.



Urnietako
udala





Gazteen emanaldian une gogoangarri ugari izan ziren. AIURRI



"Egape Bidaiak" irudimen handiko ikuskizuna da. AIURRI



Helduen ikuskizunaren amaierako unea, Edu Murumendiaraz zuzendaria buru zela. AIURRI



Ikusleek gozatu ederra hartu zuten ikuskizun bikoitzarekin. AIURRI

Egape Dantza Taldearen erakustaldia, Saroben

Egape Dantza Taldeko gazteek eta helduek "Egape Bidaiak" dantza ikuskizun bikaina bezain bizia egin zuten Saroben, igande arratsaldean. Argazki-bilduma eta bideo-pasarteak ikusgai daude Aiarri.eus webgunean

Xabier Lasa URNIETA

Edu Murumendiaraz zuzendaritzapean –eta irudimena ardatz hartuta–, munduan barrera bidaia egiteko gonbita luzatu zieten dantzariak ikusleei. "Egape bidaiak" ikuskizuna irudimenez beteriko koreografiekin osaturik dago. Egin zuten dantza-sortaren izenburuei erreparatzea besterik ez dago: Mendiriz mendi, Izarrak, Itsasoa,

Oktopus, Eteneta, Meñakoz, Basamortua...

Ikusleek dantza-erakustaldia-ekin gozatu zuten, beste behin ere. Emanaldia ospakizun bilakatu zen, festa eta uda kutsua izan baitzuen bi emanaldien amaierak.

Aiarri.eus webgunean, aurreko igandeko ikuskizunaren argazkiak eta bideo-pasarteak ikusteko aukera dago.

FINALAURREA

EKAINAK 20 OSTEGUNA 17:30EAN

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

SAGARDOAREN TXAPELKETA

2 0 2 4

01. partida (3 setera)

IRAZU · ZALDUA vs **GURRUTXAGA · ESKUDERO**

02. partida (3 setera)

Alarrenea **EZKURRA II · AZPIROZ** vs **JABALERA · BARRENETXEA IV**

03. partida (3 setera)

BEREZIARTUA **ANSA II · ZUBIRI** vs **ABURUZA URRIZA · MARTIRENA**

SARRERAK ENTRADAS